

KULTURA SAILA**Zk-4966**

156/1996 DEKRETUA, ekainaren 18koa, Euskararen Aholku Batzordea eraldatzeko. (Hutsen zuzenketa).

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen 155/1993 Dekretuaren 24.2 a) atalean ezartzen denez, testuetan egindako hutsegite batzuk kontestutik argi eta garbi argitzen badira ere –eta ondorioz, xedapen, egintza edo iragarpenen zentzua aldatzen ez badute ere–, argitalpena agindu duen organoak konpondu egingo ditu nahasbiderik ez sortzeko komenigarria den kasuetan. Horretarako, testu osoa edo kasuan kasuko testu-zatia dagozkion zuzenketekin argitaratuko du Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Euskararen Aholku Batzordea eraldatzeari buruzko ekainaren 18ko 156/1996 Dekretuan (1996ko uztailearen 1eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 125 zk.), euskaratik gaztelerarako itzulpenean hutsegite bat egin denez, egin beharreko zuzenketak azaltzen dira jarraian:

3.1 ataleko 8. idazatian, a) letran (10688. orrialdean), gaztelerako testuan, hau dio:

«a) tres representantes de cada una de las Diputaciones Forales, con rango mínimo de Director.»

Eta hau esan behar du:

«a) un representante de cada una de las Diputaciones Forales, con rango mínimo de Director.»

Zk-4967

234/1996 DEKRETUA, urriaren 8koa, balizko arkeologia guneak finkatzeko araudia ezartzen duena.

Euskal Kultura Ondareari buruz uztailearen 3an onartutako 7/1990 Legearen 49. atalak balizko arkeologia guneak sail batean jasotzen ditu Arkeologia Ondarearen barruan. Sail horretan sartzen dira aztarna arkeologikoak izan ditzaketen inguru, orube zein eraikinak eta, era berean, beharrezkotzat jotzen da bertan egingo diren obren jabeak edo arduradunak ikerketa bat egin dezan orubearen edo eraikinaren balio arkeologikoaz edo obra proiektuan izan dezakeen eraginaz.

Aipatutako ikerketa arkeologikoa legeaz aurkeztu

DEPARTAMENTO DE CULTURA**Nº-4966**

DECRETO 156/1996, de 18 de junio, de transformación del Consejo Asesor del Euskera. (Corrección de errores)

El art. 24.2 a) del Decreto 155/1993, por el que se regula el Boletín Oficial del País Vasco, establece que los meros errores u omisiones materiales que se infieran claramente del contexto y no constituyan modificación o alteración del sentido de las disposiciones, actos o anuncios, pero cuya rectificación se estime conveniente a fin de evitar posibles confusiones, se salvarán por los órganos que hayan ordenado su inserción, instando la reproducción en el Boletín Oficial del País Vasco del texto o la parte necesaria del mismo con las debidas correcciones.

Advertidos errores producidos por una incorrecta traducción del texto en euskera al castellano del Decreto 156/1996, de 18 de junio, de transformación del Consejo Asesor del Euskera, publicado en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 125, de 1 de julio de 1996, se procede a su oportuna corrección:

– En la letra a) del apartado 8.º del artículo 3.1 (página 10688), en el texto en castellano, donde dice:

«a) tres representantes de cada una de las Diputaciones Forales, con rango mínimo de Director.»

debe decir:

«a) un representante de cada una de las Diputaciones Forales, con rango mínimo de Director.»

Nº-4967

DECRETO 234/1996, de 8 de octubre, por el que se establece el régimen para la determinación de las zonas de presunción arqueológica.

De conformidad al artículo 49 de la Ley 7/1990 de 3 de julio de Patrimonio cultural vasco, se establece dentro del Patrimonio Arqueológico, la categoría de las zonas de presunción arqueológica, para aquellas zonas, solares o edificaciones en que se presume la existencia de restos arqueológicos, fijando la necesidad de que el propietario o promotor de las obras que se pretendan realizar aporte un estudio referente al valor arqueológico del solar o edificación y la incidencia que pueda tener en el proyecto de obras.

La posible incertidumbre en la que los legalmente